

# Gipuzkoako
## Bertsolari Txapelketa
## 2019

Irailak 14-Abenduak 14

www.bertsozale.eus




Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en las zonas rurales

# Agurra

Ura, egurra eta harria. Errekako ura errotara ekarri eta errotarria bueltaka-bueltaka jartzen du, etenik gabe, egun eta gau. Aleak apurka-apurka eroriko dira, eta xehatuko, irin bihurtu arte. Eta bizibide bihurtuko da eskulanaren emaitza. Nekez aurkituko ditugu bi errota edo errotarri berdin-berdin. Bakoitzak du bere moldea, bere izaera bereizgarria.

Halatsu funtzionatzen du bertso mugimenduak ere. Etenik gabe, eta bueltaka-bueltaka. Bertsozalearen etengabeko emaria da errota mugiarazten duena, bertsolaritza aleka-aleka elikatzen duena.

Sormena da bertsolariaren emaria. Ale ederrak dakartzana. Molde eta izaera bereizgarri horien guztien erakusgarri izan nahi du, irailaren 14an, Oñatin hasi eta, abenduaren 14an, Donostian amaituko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak.

Goza dezagun, beraz, eskulan horren emaitzarekin.



## Final-zortzirenak

Irailak 14: Oñati. Santa Ana Antzokia
Irailak 15: Amasa-Villabona. Gurea Antzokia
Irailak 21: Ordizia. Herri Antzokia
Irailak 22: Zumaia. Aita Mari Zinema
Irailak 28: Zumarraga-Urretxu. Zelai Arizti Aretoa
Irailak 29: Elgoibar. Herriko Antzokia
Urriak 5: Lasarte-Oria. Manuel Lekuona Kultur Etxea

## Final-laurdenak

Urriak 19: Andoain. Bastero Kulturgunea
Urriak 20: Irun. Amaia Kultur Zentroa
Urriak 26: Eibar. Coliseo Antzokia
Urriak 27: Azpeitia. Soreasu Antzokia
Azaroak 2: Azkoitia. Baztartxo Antzokia

## Finalaurrekoak

Azaroak 17: Arrasate. Uarkape pilotalekua
Azaroak 24: Oiartzun. Elorsoro kiroldegia
Abenduak 1: Tolosa. Usabal kiroldegia

## Finala

Abenduak 14: Donostia. Donostia Arena-Illunbe

** Saio guztiak 17:00etan hasiko dira.*



## Final-zortzirenak

Berrogeita bi bertsolarik jokatuko dute fase hau: aurtengo Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasetik sailkatu diren hogeita hamalau bertsolariek eta 2015eko Gipuzkoako Txapelketan finalaurrekoetara sailkatu, baina finaletik kanpo geratu ziren eta aurtengo txapelketan izena eman duten zortzi bertsolariek. Seina bertsolariz osatutako zazpi talde dira, eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera. Puntu gehien batzen dituzten hamazazpi bertsolariekin eta 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan finalera sailkatu ziren eta aurtengo txapelketan izena eman duten sei bertsolariekin osatuko dira final-laurdenak.

## Final-laurdenak

Hogeita hamar bertsolarik jokatuko dute fase hau: 2015eko Gipuzkoako Txapelketan finalera sailkatu eta aurtengo txapelketan izena eman duten sei bertsolariek eta final zortzirenetatik sailkatuko diren hogeita laurek. Seina bertsolariz osatutako bost talde egingo dira, eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera, eta puntu gehien eskuratzen dituzten hamahiru bertsolariekin osatuko dira finalaurrekoak.

## Finalaurrekoak

Final-laurdenetatik sailkatzen diren hemezortzi bertsolariak lehiatuko dira fase honetan. Sei bertsolariz osatutako hiru talde egingo dira, eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Finalaurreko bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da finalera, eta puntu gehien batzen dituzten bost bertsolariekin osatuko da finala.

## Finala

Finalaurrekoetatik sailkatuko diren bertsolarirekin jokatuko da finala. Zortzi bertsolarirekin emango zaio hasiera jardunari, eta puntu gehien metatzen duten bi bertsolarien arteko lehiarekin amaituko da.

# Sarrerak

| | Sarrerak | Bazkideak | Gazteak |
|---|---|---|---|
| Final-zortzirenak | 10 € | 7 € | 5 € |
| Final-laurdenak | 12 € | 9 € | 5 € |
| Finalaurrekoak | 13 € | 11 € | 7 € |
| Finala | 24 € | 18 € | 12 € |
| Bonuak | | 80 € | |

- ▷ Gazteak 6 eta 16 urte bitartekoak dira.
- ▷ Bonua Bertsozale Elkarteko bazkideentzat soilik dago eskuragai eta ez du finalerako balio. Bonu kopurua mugatua da.
- ▷ Finaleko sarrerak, internetez gain, saio guztietan ere eskuratu ahal izango dira.
- ▷ Posta elektronikoz jasotako sarrera edozein euskarritan inprimatu daiteke.
- ▷ Gailu elektronikoren batean ere aurkeztu daiteke sarrera.
- ▷ Eroslea da sarrerari egiten zaizkion kopia guztien erantzule. Alegia, pertsona bakar bat sar daiteke sarreran agertzen den kodearekin. Bonua ere pertsonala da.
- ▷ Gorde sarrera ekitaldia amaitu arte.
- ▷ Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak ez du sarreren dirurik itzuliko.
- ▷ Erosketa prozesuan arazoren bat baduzu deitu +34 943670575 telefonora edo idatzi bertsosarrerak@bertsozale.eus helbide elektronikora.

# Jarraitu Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

www.bertsozale.eus Bertsozale Elkartearen webguneak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren inguruko azpiatal berezia izango du eta bertan aurkituko dituzu xehetasun guztiak: albisteak, egutegia, argazkiak, puntuazioa, sintonia…

www.bertsoa.eus Ohi bezala, sareko plazak jarraipen berezia egingo dio Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari eta saioen laburpenak ikusi ahal izango dira bertan.

#GBTX19 Twitter, Facebook eta Instagram sare sozialen bitartez ere emango dugu Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren berri, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen profiletan, #GBTX19 traola erabiliz.




Jaso duguna eskainiz,
daukaguna berrituz,
garena izaten jarraitzeko.

Petritegi

## Epaileak eta idazkariak



Aitor Gereñu Agirre, Amaia Otxotorena Gamio, Ane Errazkin Aranburu,
Bakarne Urreaga Etxeberria, Eneritz Azkue Basurko, Felix Irazustabarrena Arsuaga,
Gorka Segurola Dorronsoro, Iñigo Legorburu Arregi,
Ion Martinez Ugarteburu, Joxemari Altuna Berridi



Karlos Ibarguren Olalde, Leire Beloki Lizarralde, Maite Sukia Olano, Martin Aramendi Arana,
Mikel Beloki Urkizu, Mikel Lersundi Ayestaran, Mikel Urteaga Azkue, Oihana Aranguren Etxaniz,
Silvia Etxaniz Alberdi eta Zigor Leunda Eizmendi

## Gai jartzaileak



Aitor Alkorta Azkue, Ane Ezenarro Beristain, Asier Iriondo Eguren, Eresti Oiarbide Murua
Iban Narbaiza Cevidades, Iker Iriarte Iribar, Imanol Artola Arretxe, Inaxio Usarralde Arantzadi
Ion Zaldua Brit, Irati Agirreazaldegi Garzia, Itziar Etxezarreta Arakistain, Maddi Labaka Mayoz
Saroi Jauregi Aiestaran, Unai Belaustegi Bedialauneta eta Uxune Areizaga Aranberri

# Euskara gure nortasunaren bertsoa da

2019ko Gipuzkoaako
Bertsolari Txapelketa





Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ORAIN
GIPUZKOA

Irailak

14 17:00

Oñati. Santa Ana Antzokia

Berrogeita bi bertsolarik jokatuko dute fase hau: aurtengo Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean txartela eskuratu duten hogeita hamalau bertsolariek eta 2015eko Gipuzkoako Txapelketan finalaurrekoetara sailkatu, baina finaletik kanpo geratu ziren eta aurtengo txapelketan izena eman duten zortzi bertsolariek. Seina bertsolariz osatutako zazpi talde dira, eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera. Puntu gehien batzen dituzten hamazazpi bertsolariekin eta 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan finalera sailkatu ziren eta aurtengo txapelketan izena eman duten sei bertsolariekin osatuko dira final-laurdenak.

Felix Zubia Olaskoaga
Aratz Igartzabal Bidegain
Haritz Mujika Lasa
Andoni Mujika Izagirre
Amaia Iturriotz Etxaniz
Maider Arregi Markuleta
Aurkezlea: Ibai Narbaiza Cevidades





## Irailak 15 17:00
### Amasa-Villabona. Gurea Antzokia

Beñat Iguaran Amondarain
Oier Etxeberria Zubimendi
Iban Urdangarin Lardizabal
Iñigo Mantzizidor Larrañaga
Odei Lopez Larrauri
Maialen Akizu Bidegain

Aurkezlea: Eresti Oiarbide Murua



## Irailak 21 17:00
### Ordizia. Herri Antzokia

Beñat Lizaso Alberdi
Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo
Manex Mujika Amunarriz
Ane Zuazubiskar Iñarra
Aitor Urbieta Aizpurua
Asier Azpiroz Iztueta

Aurkezlea: Maddi Labaka Mayoz





Irailak
## 22 17:00
### Zumaia. Aita Mari Zinema

Ander Lizarralde Jimeno
Gorka Maiz Alustiza
Beñat Jauregi Etxeberria
Jokin Bergara Eguren
Unai Muñoa Amundarain
Iñigo Gorostarzu Etxebeste

Aurkezlea: Saroi Jauregi Aiestaran



Irailak
## 28 17:00
### Zumarraga-Urretxu. Zelai Arizti Aretoa

Nerea Elustondo Plazaola
Eli Pagola Apezetxea
Mikel Tapia Aierbe
Iñigo Izagirre Urteaga
Unai Mendizabal Jauregi
Iker Ormazabal Ojeda

Aurkezlea: Iker Iriarte Iribar





Irailak
## 29 17:00
## Elgoibar. Herriko Antzokia

Iñaki Gurrutxaga Zubimendi
Unai Gaztelumendi Arandia
Endika Igartzabal Murua
Jokin Uranga Isuskiza
Ane Labaka Mayoz
Eñaut Martikorena Lizaso
Aurkezlea: Ane Ezenarro Beristain



Urriak
## 5 17:00
## Lasarte-Oria. Manuel Lekuona Kultur Etxea

Mikel Artola Izagirre
Iñaki Zelaia Irazusta
Eneko Araiztegi Agirre
Aitor Salegi Martija
Oier Aizpurua Olaizola
Unai Izagirre Etxeberria
Aurkezlea: Imanol Artola Arretxe





Hogeita hamar bertsolarik jokatuko dute fase hau: 2015eko Gipuzkoako Txapelketan finalera sailkatu eta aurtengo txapelketan izena eman duten sei bertsolariek eta final zortzirenetatik sailkatuko diren hogeita laurek. Seina bertsolariz osatutako bost talde egingo dira, eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera, eta puntu gehien eskuratzen dituzten hamahiru bertsolariekin osatuko dira finalaurrekoak.

Urriak
19 17:00
Andoain. Bastero Kulturgunea

Iñaki Apalategi Astigarraga
Amasa-Villabonako 1.a
Zumarraga-Urretxuko 1.a
Puntuazioz 3.a
Puntuazioz 12.a
Puntuazioz 13.a

Aurkezlea: Inaxio Usarralde Arantzadi





Urriak
## 20 17:00
## Irun. Amaia Antzokia

Agin Laburu Rezola
Oñatiko 1.a
Ordiziako 1.a
Puntuazioz 4.a
Puntuazioz 11.a
Puntuazioz 14.a
Aurkezlea: Iban Narbaiza Cevidades



Urriak
## 26 17:00
## Eibar. Coliseo Antzokia

Jon Maia Soria
Zumaiako 1.a
Puntuazioz 1.a
Puntuazioz 5.a
Puntuazioz 10.a
Puntuazioz 15.a
Aurkezlea: Itziar Etxezarreta Arakistain



IRURI
MOTOR



N-121-A - km 54,5 / 31791 SUNBILLA (Nafarroa)
620 950 687 - 636 061 536

Urriak
# 27 17:00
## Azpeitia. Soreasu Antzokia

Alaia Martin Etxebeste
Oihana Iguaran Barandiaran
Puntuazioz 2.a
Puntuazioz 6.a
Puntuazioz 9.a
Puntuazioz 16.a
Aurkezlea: Imanol Artola Arretxe




Azaroak
# 2 17:00
## Azkoitia. Baztartxo Antzokia

Beñat Gaztelumendi Arandia
Lasarte-Oriako 1.a
Elgoibarko 1.a
Puntuazioz 7.a
Puntuazioz 8.a
Puntuazioz 17.a
Aurkezlea: Ion Zaldua Brit





SAIZAR

Sagardoa · Sidra Natural

SAGARDOTEGIKO ERRESERBAK
943 373 995

BODEGA
Kale-zahar auzoa, 39
20.170 USURBIL
+34 943 36 45 97
sidreria@sidrassaizar.com

www.sidrassaizar.com

Betiko Sagardoa





Fase honetan, final-laurdenetatik sailkatzen diren hemezortzi bertsolariak lehiatuko dira. Sei bertsolariz osatutako hiru talde egingo dira, eta saio bakarrera lehiatuko dira.

Finalaurreko bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da finalera, eta puntu gehien batzen dituzten bost bertsolariekin osatuko da finala.

Azaroak
17 17:00
Arrasate. Uarkape pilotalekua

| | |
|---|---|
| Andoaingo 1.a | Puntuazioz 7.a |
| Irungo 1.a | Puntuazioz 8.a |
| Puntuazioz 2.a | Puntuazioz 13.a |

Aurkezlea: Iker Iriarte Iribar

Azaroak
24 17:00
Oiartzun. Elorsoro Kiroldegia

| | |
|---|---|
| Azkoitiko 1.a | Puntuazioz 6.a |
| Puntuazioz 1.a | Puntuazioz 9.a |
| Puntuazioz 3.a | Puntuazioz 12.a |

Aurkezlea: Inaxio Usarralde Arantzadi

Abenduak
1 17:00
Tolosa. Usabal Kiroldegia

| | |
|---|---|
| Azpeitiko 1.a | Puntuazioz 5.a |
| Eibarko 1.a | Puntuazioz 10.a |
| Puntuazioz 4.a | Puntuazioz 11.a |

Aurkezlea: Saroi Jauregi Aiestaran



Kultur Atelier
komunikazio agentzia
www.kulturatelier.eus



Finalaurrekoetatik sailkatuko diren bertsolaririekin jokatuko da finala. Zortzi bertsolaririekin emango zaio hasiera jardunari, eta puntu gehien metatzen duten bi bertsolarien arteko lehiarekin amaituko da.

Abenduak

# 14 17:00

## Donostia. Illunbe (Donostia Arena)

Arrasateko 1.a
Oiartzungo 1.a
Tolosako 1.a
Puntuazioz 1.a
Puntuazioz 2.a
Puntuazioz 3.a
Puntuazioz 4.a
Puntuazioz 5.a

Aurkezleak: Ion Zaldua Brit eta Itziar Etxezarreta Arakistain



HAMARREKO TXINPARTA
Bereziartua
Sagardo Naturala 1870etik
@SBereziartua Sidras Bereziartua Sagardoak Sidreria Bereziartua sidrasbereziartuasagardoak
Bere-Aran Etxea
Iparralde Bidea, 16.
20115 ASTIGARRAGA
Gipuzkoa
Tel. (+34) 943 55 57 98

## Final-zortzirenak (14 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, zortziko handian hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso.
Bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian bina bertso.
Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian hiruna bertso.
Kartzela: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.

## Final-laurdenak (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, zortziko handian hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, 6 puntuko motzean hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian, hiruna bertso.
Kartzela: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.

## Finalaurrekoak (16 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hamarreko handian hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, 6 puntuko motzean hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
Kartzela: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.

## Finala

### Zortzikotearen lana (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, zortziko handian hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso.
Bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian, hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian, hiruna bertso.
Bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.

### Buruz burukoa (10 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, sei puntuko motzean hiruna bertso.
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.
Kartzela: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.



www.sagardoa.eus

## Txapelketarako sailkapen fasea

84 bertsolarik hartu dute parte Gipuzkoa Bertsotan ekimenean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkatzeko balio izan duen fasean. Horietatik 34 bertsolari sailkatu dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako.

Maiatzaren 4tik 25era 14 saio jokatu dira Gipuzkoako beste hainbeste herritan. Sailkapen fasea izateaz gain, Gipuzkoa Bertsotanek bertsolari berriak oholtzan trebatzeko balio izan du, baita Gipuzkoako bertsolaritzaren bizitasuna agerian uzteko ere.











urbil | Benetako UNEAK
Urbil, Bertsolari Txapelketarekin.



# #UrbilKonpromisoa

## TOKIKO BERTSOLARITZAN ERAGITEN

Bertso-eskola bertsotan ikasteko leku bat baino gehiago da, azkena egindako bertsolaritzaren ikerketa soziologikoak ere sozializazio gune moduan identifikatu ditu. Horren adibide dira, askoren artean, Harituz Bertsozale Taldea (Tolosaldea), Txinparta Bertso Eskolia (Oñati) eta Erniarraitz Bertsozale Elkartea (Azkoitia-Azpeitia-Errezil-Zestoa). Norbere bertso-eskolaren berri eman digute Unai Mendizabalek (Harituz), Mirari Sagarzazuk (Txinparta) eta Aitor Salegik (Erniarraitz).

Harituz duela urte batzuk sortu zen Tolosaldea osoko bertso mugimenduari erantzuteko asmoz. Ahalik eta esparru gehienetan erantzuteko bertsotan ikasi nahi dutenei aukera ematen saiatzen dira, baina bestelako ekimenak ere antolatzen dituzte: bertso jarrien afaria, Pello Mari Otaño bertso-paper lehiaketa, Pello Errota sariketa, asteburu pasak… Eskualdeko saioen zein bertako bertsolarien hedapena ere egiten dute "(H)ari naizela" irratsaioaren bidez. Honi guztiari erantzuteko ezinbestekoa izan zaie lanaldi bateko kontratazioa egitea, beraz, apustu sendo bat egin behar izan dute.

Urte luzeagoko ibilbidea dute Txinpartak eta Erniarraitzek. Txinparta Oñatiko kultur mugimenduaren eragile nagusienetako bat dela esan genezake, ekintza ugari baitira antolatzen dituztenak: saioak, bertsolari gazteen edo herrikoen txapelketak, ikastaroak… Oñatiko beste eragileekin ere elkarlanerako joera dute.

HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara…eta gainera euskaraz.

*"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"*
*Antoine de Saint-Exupery*



orkli



# 1, 2, 3... 361, 362, 363, 364, BAI, EUSKARAK 365 EGUN.

#GoazenDonostia

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Elkarlan horren emaitza dira gaztelekuko bertso paper lehiaketa edo Ilunpetan argazki taldearekin osatutako erakusketa. Ekintza asko dira herriko agendan egonkortuta daudenak. Bestalde, umeen bertso-eskoletan ere ikasle asko elkartzen dira, eta hauen ardura hartzea erabat borondatezko lana da oñatiarren kasuan. Txinparta bada erreferente bat herri mailan eta jendeak badaki norengana jo bertsoaren inguruko zerbait behar izanez gero. Horretarako bertso-eskolak mugimendua behar du eta sare sozialak zein herriko komunikabideekin elkarlana ere ezinbestekoa dira.

Erniarraitz, berriz, 1999ko Herriarteko Txapelketaren ondorioz sortutakoa da eta Urolako 4 herri hartzen ditu bere baitan. Urte luzez sustapen lan handia egin du herriz herri ekimen ezberdinak antolatzen: jaialdiak, gazteen sariketa, Bertso Parranda, Bertso Astea… Hala ere, azken urteetan erronka nagusia hezkuntza ez arautuan izan du. Duela urte batzuetara arte ikastetxeetan antolatzen ziren umeen bertso-eskolak eta horrek elkarren arteko harreman sareetan zailtasunak ekartzen zituen nahiz eta aisialdiko ekintza batzuk elkarlanean antolatu, esaterako urteroko asteburu pasa. Gaur egun herri guztietako ikasleak dituzte beharren araberako taldeetan banatuta. Talde horiek guztiak Erniarraitzek hartzen ditu bere gain lanaldi erdiko kontratazio batekin.

## Bertsozaleen topagune eta belaunaldi ezberdinen arteko zubi.

Bertso mugimendua bizi bizirik egoteko ezinbestekoa da bertsozaleengana hurbiltzea. Hiru bertso-eskola hauetan bertsozale ugari elkartzen dira, eta ez soilik bertsotan egin nahi dutenak, bertsolaritzarekin gozatu nahi dutenak baizik. Bertso-eskola berean adin ezberdinetako zaleak elkartzeak bermatuko du transmisioa modu natural batean ematea, eta horretarako garrantzi handia du bertsozale berriak erakarri eta sortzeak ere.

Hezkuntza arautuko Gu ere bertsotan proiektuak edo tokian tokiko ikastetxeetan motibazio saioak egiteak ekartzen du sarritan bertso-eskolako ikasle kopuruaren gorakada, ondoren belaunaldi ezberdinen arteko zubilana egitea da Harituzen, Txinpartaren eta Erniarraitzen zereginetako bat. Zaila da egunerokotasunean haurren eta helduen erritmoak uztartzea, baina ikasturte bukaerako topaketa edo saioetan elkartzen dira. Harreman horrek berak ekarriko ditu elkarlana zein etorkizunerako bermea.

Bertso-eskolaren oinarria talde izaera da, elkarlanak dakar herriz herri edo bailaraz bailara bertsolaritza osasuntsu egotea. Bertsoak behar ditu bertsolariak, baina, behar ditu gai jartzaile, epaile, antolatzaile eta entzuleak ere. Beraz, tokiko bertso-eskolen funtzioa nabarmentzekoa bezain garrantzitsua da Gipuzkoako bertsolaritzarentzat.



CLÍNICA BENEGAS
OINETARAKO BEHAR DUZUN TRATAMENTUA
Resurrección María de Azkue 32, behea . Benta Berri . Donostia
Tel.: 943 421 009 . www.clinicabenegas.com


euskal
sagardoa
Sidra natural
del País Vasco
euskal
sagardoa
euskal
sagardoa
Sidra natural
del País Vasco
hazı
Kalitate bermea
%100 bertako sagarra

# Lanku

Kultur zerbitzu profesionala

## Zer gara?

Bertsoa eta sorkuntza erdigunean jarriz saioak, emanaldi bereziak, argitalpenak, ekoizpenak, egile eskubideak sortu eta kudeatzen dituen enpresa.

Gurekin harremanetan jartzeko
943 260755 edo lanku@lanku.eus
Gure berri jakiteko
www.lanku.eus

Neretik
Urpekakariak
Gorria
Erradikalak ginen
Bertso Saio Literarioa
Ez da kasualitatea
Petresku etzi ez etsi
Auskalo zeinek jarriak
Plaza Irrintzika




**EUROLAN 4X4 S.L.**
Oria etorbidea Pabellon 2, 20160 Lasarte-Gipuzkoa.


Orona
fundazioa
ORONA FUNDAZIOAK,
GURE ONDARE EZ MATERIALAREN
ALDE, BAT EGITEN DU
BERTSOLARITZAREKIN.

# BDBn, Gipuzkoako Txapelketari buruzko dudak argituko dituzu!

2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren harira, lehiaketa bat proposatu nahi dizugu. Behean ageri diren galderei ongi eta zuzen erantzutea da kontua. Lanak errazte aldera, jakin ezazu, erantzun guztiak Bertsolaritzaren Datu Basean aurkituko dituzula, bdb.bertsozale.eus webgunean.

Bertsolaritzaren Datu Basea (BDB) Xenpelar Dokumentazio Zentroko informazio eta dokumentuak arakatzeko sareko tresna da. 2011. urtean jarri zen martxan eta etengabe garatzen ari da. Aurten, esaterako, bilatzaile berria erantsi zaio eta bilaketa bakarra eginda, BDB barruan dauden datu base guztietan zer dagoen ikusteko aukera dago.

Bidali zure erantzunak eta datuak (izen-abizenak, e-posta eta telefono zenbakia), azaroaren 3a baino lehen, xenpelar@bertsozale.eus helbidera. Ongi erantzuten duten guztien artean txapelketako finalaurreko bakoitzerako eta finalerako bina sarrera eta Gaztañaga sagardotegian lau lagunentzako otordua zozketatuko ditugu.

Erantzunak zein sarituen izenak www.bertsozale.eus webgunean argitaratuko ditugu.

1. Gaur egun Gipuzkoako txapelduna den bertsolariak Illunbeko bere lehen finalean kantatutako lehen bertsoan erabilitako doinuari beste bertsolari baten bertso sortak ematen dio izena. Duela zenbat urte hil zen bertsolari hori?

2. 2017ko Txapelketa Nagusiko finalean, puntukako ariketan erabilitako doinu bati Gipuzkoako txapelduna izan den bertsolari baten bertsoak ematen dio izena. Nor izan zen txapeldunordea, bertsolari honek txapela jantzi zuen urtean?

3. Gipuzkoako Txapelketako finaleko argazkia da ondorengoa; non eta noiz jokatu zen final hori?

4. Aipatu berri dugun finaletik txapelduna eta txapeldunordea joan ziren hilabete geroago jokatu zen Txapelketa Nagusira. Txapeldunordeak bere biografia bilduko zuen liburu bat idatzi zuen 2005. urtean.
Nola du izena liburuak?



Zutik: Txomin Garmendia, Jose Luis Gorrotxategi, Fermin Muñoa, Patxi Etxeberria eta Koxme Lizaso
Eserita: Xanti Zabala "Lexo", Pedro Aizpurua "Lilibe" Nikolas Zendoia eta Joxe Intxausti

eun group
Innovation in Filling and Storage Systems


LumaGorri
BENETAKO BASERRIKO OILASKOA
LumaGorri
Baserriko
Oilaskoa
Pollo de
Caserío
Belardian aske hazitakoa
Criado libre en pradera
Euskal
Baserriko
Oilaskoa
Pollo de
Caserío Vasco
EUSKO LABEL
4010274
Belardian aske hazia
EUSKO LABEL
Euskal
Baserriko
Oilaskoa
Pollo de
Caserío Vasco
EUSKO LABEL EGIAZTAGIRIA DUEN
OILASKO BAKARRA

| OÑATI Irailak 14 | Puntuak |
|---|---|
| FELIX ZUBIA | |
| ARATZ IGARTZABAL | |
| HARITZ MUJIKA | |
| ANDONI MUJIKA | |
| AMAIA ITURRIOTZ | |
| MAIDER ARREGI | |

| ZUMAIA Irailak 22 | Puntuak |
|---|---|
| ANDER LIZARRALDE | |
| GORKA MAIZ | |
| BEÑAT JAUREGI | |
| JOKIN BERGARA | |
| UNAI MUÑOA | |
| IÑIGO GOROSTARZU | |

| LASARTE-ORIA Urriak 5 | Puntuak |
|---|---|
| MIKEL ARTOLA | |
| IÑAKI ZELAIA | |
| ENEKO ARAIZTEGI | |
| AITOR SALEGI | |
| OIER AIZPURUA | |
| UNAI IZAGIRRE | |

| AMASA-VILLABONA Irailak 15 | Puntuak |
|---|---|
| BEÑAT IGUARAN | |
| OIER ETXEBERRIA | |
| IBAN URDANGARIN | |
| IÑIGO MANTZIZIDOR | |
| ODEI LOPEZ | |
| MAIALEN AKIZU | |

| ZUMARRAGA-URRETXU Irailak 28 | Puntuak |
|---|---|
| NEREA ELUSTONDO | |
| ELI PAGOLA | |
| MIKEL TAPIA | |
| IÑIGO IZAGIRRE | |
| UNAI MENDIZABAL | |
| IKER ORMAZABAL | |

| ANDOAIN Urriak 19 | Puntuak |
|---|---|
| IÑAKI APALATEGI | |
| AMASA-VILLABONAKO 1.a | |
| ZUMARRAGA-URRETXUKO 1.a | |
| Puntuazioz 3.a | |
| Puntuazioz 12.a | |
| Puntuazioz 13.a | |

| ORDIZIA Irailak 21 | Puntuak |
|---|---|
| BEÑAT LIZASO | |
| AINHOA AGIRREAZALDEGI | |
| MANEX MUJIKA | |
| ANE ZUAZUBISKAR | |
| AITOR URBIETA | |
| ASIER AZPIROZ | |

| ELGOIBAR Irailak 29 | Puntuak |
|---|---|
| IÑAKI GURRUTXAGA | |
| UNAI GAZTELUMENDI | |
| ENDIKA IGARTZABAL | |
| JOKIN URANGA | |
| ANE LABAKA | |
| EÑAUT MARTIKORENA | |

| IRUN Urriak 20 | Puntuak |
|---|---|
| AGIN LABURU | |
| OÑATIKO 1.a | |
| ORDIZIAKO 1.a | |
| Puntuazioz 4.a | |
| Puntuazioz 11.a | |
| Puntuazioz 14.a | |

LABORAL kutxa

| EIBAR Urriak 26 | Puntuak |
|---|---|
| JON MAIA | |
| ZUMAIAKO 1.a | |
| Puntuazioz 1.a | |
| Puntuazioz 5.a | |
| Puntuazioz 10.a | |
| Puntuazioz 15.a | |

| AZPEITIA Urriak 27 | Puntuak |
|---|---|
| ALAIA MARTIN | |
| OIHANA IGUARAN | |
| Puntuazioz 2.a | |
| Puntuazioz 6.a | |
| Puntuazioz 9.a | |
| Puntuazioz 16.a | |

| AZKOITIA Azaroak 2 | Puntuak |
|---|---|
| BEÑAT GAZTELUMENDI | |
| LASARTE-ORIAKO 1.a | |
| ELGOIBARKO 1.a | |
| Puntuazioz 7.a | |
| Puntuazioz 8.a | |
| Puntuazioz 17.a | |

| ARRASATE Azaroak 17 | Puntuak |
|---|---|
| ANDOAINGO 1.a | |
| IRUNGO 1.a | |
| Puntuazioz 2.a | |
| Puntuazioz 7.a | |
| Puntuazioz 8.a | |
| Puntuazioz 13.a | |

| OIARTZUN Azaroak 24 | Puntuak |
|---|---|
| AZKOITIKO 1.a | |
| Puntuazioz 1.a | |
| Puntuazioz 3.a | |
| Puntuazioz 6.a | |
| Puntuazioz 9.a | |
| Puntuazioz 12.a | |

| TOLOSA Abenduak 1 | Puntuak |
|---|---|
| AZPEITIKO 1.a | |
| EIBARKO 1.a | |
| Puntuazioz 4.a | |
| Puntuazioz 5.a | |
| Puntuazioz 10.a | |
| Puntuazioz 11.a | |

| DONOSTIA Abenduak 14 | Puntuak |
|---|---|
| ARRASATEKO 1.a | |
| OIARTZUNGO 1.a | |
| TOLOSAKO 1.a | |
| Puntuazioz 1.a | |
| Puntuazioz 2.a | |
| Puntuazioz 3.a | |
| Puntuazioz 4.a | |
| Puntuazioz 5.a | |

Laboral Kutxa
bertsolaritzarekin!

# Egin zaitez Bertsozale Elkarteko bazkide

Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen egitekoa bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta haren transmisioa eta etorkizuna bermatzea da. Helburuok erdiesteko, ezinbestekoa da bazkideon laguntza.

## Bazkide egiten bazara…

… Elkartearen egitasmoak gauzatzen lagunduko diguzu: Bertso Eskolen sustapena, hezkuntza arautuko irakaskuntza egitasmoa, aisialdi jarduerak, Hitzetik Hortzera telebista saioa, www.bertsozale.eus webgunea, bertsoa.eus plaza digitala, Bertso Eguna, txapelketak, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, ikerkuntza proiektuak, kulturartea…

… Bertsozale Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietarako sarrreretan beherapenak izango dituzu.

… urteko bertso saio esanguratsuenak biltzen dituen Bapatean audio-liburua doan jasoko duzu etxean.

… Bertsozalea jasoko duzu doan hilero, eta zuzenean jasoko duzu Bertsozale Elkartearen berri.

## Nola egin bazkide

www.bertsozale.eus atarian dagoen formularioa betez edo +34 943670575 telefonora deituz.

| BAZKIDE MOTA | URTEKO KUOTA |
|---|---|
| Norbanako bazkide arruntak | 60 euro |
| Elkarte laguntzaileak | 120 euro |
| 18 urtetik beherakoak | Ez dute kuotarik ordaintzen |

Oharra: Gipuzkoako Txapelketak irauten duen bitartean bazkide eginez gero, txapelketako sarreretan beherapena izango duzu eta ez duzu 2019ko kuota ordaindu beharrik izango.

AÑOTA
TOLARE SAGARDOTEGIA · SIDRERÍA
JATETXEA · RESTAURANTE
Elosiaga auzoa 434, 20730 Azpeitia
943 81 20 92



## GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN URTEKO JARDUERAREN BABESLEA

## GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN BABESLEAK

## GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA LAGUNTZEN DUTEN UDALAK

## GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA LAGUNTZEN DUTEN HEDABIDEAK

# EUSKARA ETA KULTURA HERRIAREN GEROA



elkar fundazioa